



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA
INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

Ebazpena, 2021eko azaroaren 15ekoa, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariarena, zeinaren bidez formulatzen baita Ormaiztegin (Gipuzkoa) lorategi-landareak ekoizteko lursailen egokitzapen-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua.

AURREKARIAK

2021eko uztailaren 20an, Ormaiztegi Udalak Ormaiztegin (Gipuzkoa) lorategi-landareak ekoizteko lursailen egokitzapen-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua emateko eskaera aurkeztu zion ingurumen-organoari, Ingurumen Ebaluazioaren Legean (21/2013, abenduaren 9koan) xedatutakoaren arabera.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, halaxe zehazten baita abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34.3 artikuluan. Horren emaitza espedientean dago jasota. Era berean, izapidearen hasieraren berri eman zitzaion Ormaiztegi Udalari.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, horretan interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-inpaktuari buruzko azterketaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 34.5 artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen plan, programa eta proiektuen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea da helburua; era horretan, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasangarria sustatzeko.

Era berean, Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikularekin bat etorritik, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek era egokian bermatuko dute, beste helburu batzuen artean, plangintza-prozesuaren lehen faseetan sartzea, eta, aukerarik egokienak hautatzeari dagokionez, ingurumenean dauzkan ondorioen analisia egitea jarduerak eragindako metaketa- eta sinergia-ondorioak aintzat hartuta.

Ormaiztegin (Gipuzkoa) lorategi-landareak ekoizteko lursailen egokitzapen-proiektua abenduaren 9ko Ingurumen Ebaluazioaren 21/2013 Legearen II. eranskineko 9.c. taldean dago jasota (*Ibaietatik, lurretik edo itsasotik erauzitako materialak isurtzeko edo jalkitzeko lurreko instalazioak, I. eranskinean sartuta ez daudenak, hektarea bat baino gehiagoko azalera hartzen*

Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Orrialdea: 1/13



badute), eta sustatzaileak ingurumen-ebaluazio ohikoa egin dakion eskatu du, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 7.1. artikuluan zehaztutako aplikatzeko, zeinak ezartzen baitu ingurumen-inpaktuaren ebaluazio ohikoa egingo zaiela 7.2 apartatuan jasotzen diren proiektuei, sustatzaileak hala eskatzen duenean.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 34. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozedura arrunta hasi aurretik, proiektuaren sustatzaileak ingurumen-organoari eskatu ahal izango dio, organo substantiboaren bidez, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egiteko. Horretarako, sustatzaileak organo substantiboari aurkeztuko dio ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismena zehazteko eskaera, proiektuaren hasierako dokumentuarekin batera. Organo substantiboak, aurkeztutako dokumentazioaren egokitasuna egiaztatu ondoren, ingurumen-organoari igorriko dio, ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-agiria egin dezan, eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egin ondoren.

Hartara, arau horren arabera, espedientean jasota dauden txostenak kontuan izanik, ingurumen-organoak baditu aski judizio-elementu ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egiteko.

Azkenik, ingurumen-inpaktuari buruzko azterketaren irismena zehazteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 35. artikuluan eta VI. eranskinean jasotako eskakizunak hartu dira kontuan.

Orain arte ezarritakoari jarraikiz, espedienteko txostenak aztertu dira eta honako hauek guztiak ikusi dira: 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa; 68/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; eta 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, bada, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. – Ormaiztegin lorategi-landareak ekoizteko lursailen egokitzapen-proiektuaren ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, honako baldintza hauetan:

1. Proiektuaren ingurumen-ebaluazioaren alderdi garrantzitsuak:

Proiektuaren helburua da Lapatza ibarra betetzea, Ormaiztegin, Ikerlora Jardinería y Viveros SL enpresaren instalazioen alboko eremuan, eta nagusiki bere jabetzakoak diren landa-lursailetan, lorategi-landareak hazteko negozioa handitzeko.

Proiektatutako betelanaren ezaugarri orokorrak honako hauek izango dira:

- Betelanak 26.616 m²-ko azalera izango du oinplanoan, eta 459.832 m³-ko bolumen zenbatetsia. Ibarra betetzeko, honako material hauek erabiliko dira: hurbileko obretako



- indusketetako lurrak eta harriak. Bazter utzi da eraispenetik eta/edo eraikuntzatik eratorritako hondakinak balioztatu eta berrerabiltzeko aukera.
- Betelanak +210 eta +250 koten artean jardutea dakar, eta, azken fasean, plataforma ia erabat horizontala eratuko da, % 1 eta 3 arteko maldakoa. Betelanerako materialak lurzatiaren gainean botako dira, behealdetik hasita, geruzaka, bete ahala altueran gora eginez, harik eta proiektatutako plataforma eratu arte.
 - Betelana egiteak ibarra drainatzen duen erreka desbideratzea dakar. Betelana gauzatu aurretik, harrizko lubeta-oin bat jarriko da behealdean, euste-elementu gisa, eta drainatzeak, bai hondokoak bai alboetakoak (areka perimetrala, zorroten mailakatuak...), arroaren goiko aldetik eta alboko hegaletatik betelanera urik ez sartzeko. Areaka perimetraletatik bildutako urak, betelanaren aurrealdearen parean, Lapatza erreka itzuliko dira zorrotenen bidez, betelanetik ibaian behera. Behin aurretiko obrak eginda, materialak botatzeari ekin ahalko zaio.
 - Proiektuaren hasierako dokumentuaren arabera, betelanaren helburua da Ikerlora Jardinería y Viveros SL enpresa sustatzailearen lorategi-landareen ekoizpen-ahalmena handitzeko espaziorik ezari irtenbidea ematea, eta, era berean, aukera emango du inguruan egiten diren obretako hondeaketa-soberakinak (lurra eta harri naturalak) kokatzeko eta uzteko.
 - Betelana itxi ondoren –lurzatiaren topografia aldatuko du–, landareztatzeke plana gauzatu da, zeinaren bidez leheneratuko baita betelanaren aurrealdea baso autoktonoa landatuta; halaber, areka perimetraletan beste jarduketa batzuk egingo dira (ibilgu aldatua), eta lorategi-landareen hazkuntza-jarduera goiko aldean sortutako plataforman garatuko da.
 - Proiektuaren xede den lurzatiarako sarbidea GI-632 errepidetik egingo da, 5. kilometropuntuaren parean, Ormaiztegiko mendebaldeko irteeraren inguruan, Ikerlora Jardinería y Viveros SL enpresaren egungo instalazioetara doan hormigoizko eta jabetza pribatuko bide batetik. Sartzeko bide horrek 1.100 metro luze ditu, eta proiektuaren exekuzio-fase osoan erabiliko litzateke.

Proiektuaren eremua Ormaiztegiko herrigunearen ipar-ekialdean dago, harengandik Beasain-Zumarraga errepideak (Ormaiztegiko saihesbidea) banatzen duela; lurzoru urbanizaezina da eta, gaur egun, konifero exotikoen baso-landaketarako da; baso gaztea da, oraintsuko zuhaixka-formazioekin –baso-landaketak moztu ondoren– eta landaredi erruderalarekin. Eremua ez dago balio estrategiko handiko lurzoruetan, EAeko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren arabera.

Ibarraren hondotik, Lapatza erreka doa, ibilbidea eraldatua duen ur-ibilgu txikia; proiektatutako esku-hartzetik ibaian behera, jatorrizko ibilgua lurperatu egin zen, eta desbideratu, 90eko hamarkadan, GI-632 errepidea eraikitzeke obretako soberakinak hartzeko lur-betelan bat egin zelako.

Betelanak egin nahi diren eremuan, nagusiki, konifero exotikoen landaketak, birsortzen ari den zuhaitz gazteen orban bat (hostozabal autoktonoak) eta landaredi erruderala daude. Espezie exotiko inbaditzaileak daudela ikusi da: *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana*, *Buddleja davidii*, *Fallopia japonica* eta *Phytolacca americana*.

Afekzio-eremuan ez dago flora- edo fauna-espezie mehatxaturik, ez eta babestutako gunerik eta inbentarioan jasotako natura-intereseko lekurik ere. EAeko Igarobide Ekologikoen sareari buruzko azterketan zehazten diren egiturazko elementurik ere ez dago, ez eta paisaia-interes bereziko gunerik ere.



Lurzatia gehienbat baso-landaketez eta baserrien inguruko nekazaritza-paisaiako lurzati txikiz eratutako paisaia batean dago, mendi-hegalen eta ibaiarte bizkardunen gainean. Gaur egungo baldintzetan, zuhaitz-landaredia duela, ikuspena inguruko baserri batzuetara mugatzen da, baina ahultasun bisuala pixka bat handiagoa izango da, lursailetik goren dauden lekuetaraino doazen eta zirkulazio handiko GI-632 errepidetik doazen behatzaile potentzialen kopurua dela eta.

Kultura-ondareari dagokionez, azterketa-eremua eta sartzeko pista bat datoz, zati batean, Donejakue bidearen Bidania - Zerain tartearekin; barneko bide hori monumentu-multzo kategoriarekin sailkatutako kultura-ondasuna da.

Ez da hauteman uholde-arriskurik, kutsatutako lurzorurik edo akuiferoen kutsadurarekiko zaugarritasun handirik. Aipatu behar da proiektuaren eremutik hurbil lurzoru kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoru inbentarioan sartuta dagoen lurzati bat dagoela. Hasierako dokumentuaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zabortegei zahar bat da, eta proiektuak ez du eraginik izango hartan.

2. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren zabalera, xehetasun-maila eta zehaztasun-maila:

Ingurumen-inpaktuaren azterketak bete egin beharko ditu, gutxieneko edukiei eta egiturari dagokienez ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 35. artikuluan eta VI. eranskinean xedatzen dituztenak.

Aurrekoarekin bat etorritz, garatzen diren apartatuek eskema metodologiko honi erantzun behar diote:

1. Proiektuaren deskribapen orokorra egitea, eta denboren joanean lurzoruaren eta bestelako natura-baliabideen erabileran izango duen eraginari buruzko aurreikuspena egitea. Materiaren edo energiaren isuri, emisio eta hondakin motak eta kopuruak balioestea.
2. Aztertutako aukera nagusiak azaltzea, zero aukera barnean hartuta (proiekturik ez egitea, alegia), eta hartutako irtenbidearen alde egiteko arrazoi nagusiak justifikatzea, proiektuak eragindako ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta.
3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko edo ingurumen-interakzio garrantzitsuenak deskribatzea.
4. Inpaktua identifikatzea, kuantifikatzea eta neurtzea: ebaluatuko da ea zer-nolako eragina izan dezakeen proiektuak, zuzenean nahiz zeharka, biztanlerian, giza osasunean, floran, faunan, biodibertsitatean, geodibertsitatean, lurzoru, zorupean, airean, uretan, faktore klimatikoetan, klima-aldaketan, paisaian eta ondasun materialean (ondare historiko-artistikoa eta arkeologikoa barne), ingurumenaren gaineko ondorioak kontuan hartuta. Halaber, arreta jarriko zaio faktore guztien arteko interakzioari, proiektua gauzatu, ustiatu eta, hala badagokio, eraitsi edo bertan behera uzteko fase guztietan.
5. Proiektuaren kalteberatasuna. Proiektuaren kalteberatasunaren ondorioz proiektuak ingurumenean eragingo dituen ondorio kaltegarri nagusiak zehaztea, istripu larriak edo/eta hondamendi handiak gertatzeko arriskua dela eta.
6. Ingurumenean eragiten diren ondorio kaltegarriak prebenitu, zuzendu, eta, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusi diren neurriak.
7. Ingurumena zaintzeko programa.

8. Azterlanaren laburpena eta ondorioak, erraz ulertzeko moduan. Beharrezkoa bada, azterketa egitean izandako zailtasun tekniko edo informatiboen berri emango da.

Oro har, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean garatzen da zein diren ingurumen-inpaktuari buruzko azterketa garatzeko baldintzak.

Proposatzen diren jardueren eta kaltetu daitekeen ingurumenaren ezaugarriak direla-eta, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko azterketak aipatutako atal horiek garatu beharko ditu, ondoren adierazitako zabalatasunarekin eta xehetasun-mailarekin:

2.1. Proiektuaren eta egintzen deskribapena

Ingurumen-inpaktuaren azterlanak xehetasun-maila nahikoa duen proiektuaren deskribapena izan behar du barne, baita denborarekin aurreikus daitezkeen beharren azalpena ere, lurzorua eta bestelako baliabide naturalen erabilerari dagokionez. Halaber, kalkulatu behar du jardueren ondorioz sortuko diren materia- edo energia-hondakin, jario eta emisioen mota eta kopurua, eta, zehazki, ingurunean ingurumen-kondiziotan eragin garrantzitsuak izan ditzaketen ekintzak identifikatu behar ditu azterketa xehatu baten bitartez, gauzatze-fasea eta funtzionamendu-fasea aintzat hartuta.

Ingurumen-eraginen bat izan dezaketen proiektuko ekintza guztiak identifikatu behar dira, neurri babesgarri eta zuzentzaile egokienak hartzen direla bermatzeko helburuarekin.

Saihestu eta zuzendu nahi diren kalteak, bai proiektuak proposatutako jardueratik beretik, bai berezkoak zaizkion jarduera osagarri guztietatik etor daitezke, bereziki, honako hauetatik: lehengo sarbideak egokitzetik, eta obrarako instalazio lagungarrietarako eta materialak eta makinak pilatzeko eremu lagungarrien kokapen eta erabileragatik.

Jarduketa hauek guztiak xehetasun-maila nahikoarekin definitu beharko dira, proiektua gauzatzeak ingurumenean izan litzakeen ondorioak kalkulatzeko eta prebentzio- eta zuzenketa-neurri egokiak diseinatu ahal izateko, hartara hautemandako ingurumen-eraginak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatuta.

Aurrekoa kontuan hartuz, eta ebaluatzen ari den proiektuaren ezaugarriak ikusita, besteak beste, honako alderdiak xehetasunez azaldu beharko dira:

- Proiektuaren eraginpeko eremuaren kokalekua eta mugaketa.
- Betelanak okupatzen duen azalera osoa, hondakinen guneak okupatzen duen azalera eta instalazio osagarriek, sarbideek, drainatze perimetralek eta abarrek betetzen dutena bereizita.
- Betelanean onartu beharreko materialak, Europako Hondakinen Zerrendaren arabera dituzten kodeak adierazita (EHZ kodeak).
- Utziko diren hondeaketa-materialen kopuru osoa eta betelanean utziko diren materialen jatorria. Hondakinen garraioa jatorrizko lekutik. Hautatutako bideak, ibilgailuen eguneko batez besteko intentsitatea, eraginpeko nukleoak.
- Betelanerako eguneko gaitasuna.
- Jarduerarako beharrezkoak diren azpiegiturak trazatu eta deskribatzea: ur-hornidura, elektrizitatea, komunikazioak, gurpilak garbitzeko instalazioak, etab.
- Betelan-eragiketen faseak eta aurreikusitako iraupena.



- Fabrika-obrak: neurriak, eraikuntza-tipologia eta betelanari eusteko harri-lubeta xehetasun-planoan kokatzea. Betelanaren egonkortasunaren justifikazioa.
- Betelana gauzatzeak eragina izango duen ibilguaren luzera. Ibilgu berriaren trazadura, eraikuntza- eta akabera-materialak, luzetarako eta zeharkako profilak eta ereduak sekzioak. Ibilguan eta ibaiertzetan egin behar diren lanen deskribapena.
- Betelanaren ontzia egokitzeko obretako hondeaketa-materialen balantzea, soberakinen datuak, pilatzeko beharrak eta faseka eginiko erabilerak adierazita. Era berean, behin-behineko bilketa-guneen eta lurak zein obrako materialak metatzeko guneen kokapena adierazi beharko da. Funtsezkoa da zehaztea gune horiek betelanaren lurzatian bertan kokatuko diren edo beste gainazaleraren bat okupatu beharko den.
- Proiektuaren fase guztietan sortutako hondakinak eta haien helmuga, lur-mugimenduen soberakinak barne. Obrak egin bitartean eraikitze- eta eraipen-jardueren ondorioz sortutako hondakinak honako bi xedapen hauen arabera kudeatuko dira: 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa, eta 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Eraikuntza eta eraipen hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa.
- Betelanaren mugetatik biztanle-guneetara eta etxebizitza isolatuetara dagoen distantzia.
- Pilaketa-gunerako sarbideen eta zamalanetarako eta mantentze-lanetarako pista osagarrien trazadura. Betelanera sartzeko bidea egokitzeko beharra, hala badagokio. Sortutako ezpondak eta lur-mugimenduak.
- Obrako instalazio osagarrien, behin-behineko pilaketa-guneen eta lurak zein obrako materialak metatzeko guneen kokapena.
- Itxitura perimetrala.
- Pilaketa-gunearen egonkortasunaren azterketa, kontuan hartuta betelanaren nahiz substratuaren lerradura-arriskua eta maila freatikoa. Eusteko elementuen beharra.
- Betelana amaitu ondoren, eremuko paisaia leheneratzeko lanen xehetasuna eta lursailen xedea.

Proiektua behar bezala deskribatzeko beharrezkoak diren xehetasun-planoak aurkeztuko dira, gutxienez honako hauek barne hartuta:

- Kokapen geografikoaren plano georreferentziaduna eta eremuaren plano. Betelanaren mugak eta lotutako instalazioak behar bezala seinalatzatuta egon behar dira.
- Plano takimetrokoak, hasierako egoeraren eta amaierako egoeraren sestra-kurbekin. Oinplanoa eta lursailaren luzetarako zein zeharkako sekzioen planoak, hondakinak uzten hasi aurreko zein amaitu ondorengo kotekin.
- Zerbitzu-sareak. Oinplanoak, sare orokorreko harguneak non izango diren zehaztuz.
- Drainatze perimetralen trazadura eta isurketa-puntua jasotzen dituzten planoak. Luzetarako eta zeharkako profilak eta ibilgu berriaren ereduak sekzioak.
- Betelanera sartzeko bidearen trazadura, egokitu beharreko bide-zatiak identifikatzea eta haien profilak eta ereduak sekzioak.

2.2. Aztertutako beste aukera batzuen azalpena eta hartu den aukeraren justifikazioa

Ingurumen-inpaktuaren azterlanak barne hartu behar du ingurumenerako egokien diren aukera teknikoki bideragarrien azterketa, eta horien konparaziozko balorazioa egin behar du, zero aukera edo ez jardutekoa barne. Proposatutako irtenbidea arrazoitu beharko da.

Aukeren azterketak barne hartu behar ditu, orobat, sarbiderako trazadura-aukera guztiak, bai eta areka perimetralak eta zorroten mailakatuak egiteko aukerak ere, eta lehentasuna eman beharko zaie bioingeniartzako teknikak erabiliz landareztatze aukera gehien ematen duten

konponbideei. Era berean, irtenbide «bigunak» lehenetsiko dira, ereinez eta landatuz landareztatze aukera emango dutenak, eta bioingeniaritzako teknikak erabiltzeko, eraginpean dauden ibilguei ahalik eta potentzialtasun ekologiko handiena emateko.

Apartatua bukatzeko, hautatutako aukera argudiatu beharko da, eta bermatu beharko da hautatutako aukera hori teknikoki eta ingurumenari dagokionez bideragarria dela; era berean, ingurumenaren osagaiei ahalik eta gutxien eragiteko ahalegina egin beharko da.

2.3. Ingurumen-inbentarioa eta interakzio ekologiko garrantzitsuenen deskribapena

Apartatu honetan, ingurua deskribatu beharko da, arreta berezia jarrita elementu baliotsuenetan eta proiektuko ekintzen eragin handiena jaso dezaketenetan. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenarekin bat etorriz, proiektua egin aurretik lekuaren egoera eta ingurumen-kondizioak aztertuko dituen txostena ere izan behar du, baita oraingo ingurumen-egoera eta ebaluatzen den proiektutik eratorritako jarduketaren ondoriozko egoera konparatzeko azterketa bat ere.

Ingurumen-inbentarioa apartatuz apartatu balioztatuko da. Balorazio horretan, elementuen garrantzi erlatiboa aztertuko da erreferentzia-esparru baten barnean (herri mailan, eskualdekoan eta abar).

Kasu guztietan, datuak eskuratzeko iturri dokumentalak adieraziko dira, material bibliografikoak izan, norberak prestatuak edo bestelakoak.

Orokorrean, ingurumen-inbentarioaren azalpena modu laburrean egingo da, ingurumen-inpaktuaren azterketaren ikuspuntutik ekarpenik egiten ez duten azalpen orokorrak ekidinez, eta proiektuak ingurumenean izan litzakeen eraginak ulertzeko behar dena kontuan hartuz.

Ezertan eragotzi gabe aurretik esandakoa, proiektuaren eraginpean dagoen eremuaren ezaugarriak ikusita, ingurumen-inbentarioak honako alderdi hauek hartuko ditu barne:

- Geologia eta geomorfologia
 - Proiektuaren eraginpeko eremuaren ezaugarri geologiko eta geomorfologikoak. Baldintzatzaile geoteknikoak.
 - Interes geologiko/geomorfologikoa duten leku, gunek eta eremuak identifikatzea.
 - Material litologikoen iragazkortasuna. Akuiferoen kalteberatasuna. Kalteberatasun handiko zonen, karga-zonen, hustutegiaren eta abarren identifikazioa, halakorik balego, eta zona horien eta proiektuaren arteko erlazioa.
- Lurrazaleko eta lurpeko hidrologia
 - Sare hidrografikoa proiektuaren eragin-esparruan. Proiektuak ukitutako ibilguen eta haien ertzen egoera.
 - Akuiferoak eta interes hidrogeologikoko gunek kutsatzeko urrakortasuna
 - Uren kalitatea.
 - Eremuan dauden ur-puntuak. Horien ezaugarriak deskribatzea, erabilera eta kokalekua xehetasunezko kartografian adierazita.
- Eremu horretan dauden biozenosien eta ekosistemen deskribapena



- Atal horretan, eraginpeko komunitateak identifikatu, eta honako hauek adieraziko dira: kontserbazio-maila, egiturazko konplexutasuna, espezie bereizgarri, enblematiko edo adierazgarriak eta abar. Kontuan hartuko da, bereziki, espezie mehatxatuak dauden, eskualde-mailan, naziokoan, Europakoan nahiz nazioartekoan.
- Ingurumen-inpaktuaren azterketak xehetasunez zehaztuko ditu, azterketa zehatz baten bidez, proiektuaren jarduerak eragindako intereseko habitat bakoitzaren eta landaredia autoktonoen masen azalera, haien osaera, kontserbazio-egoera eta balio ekologikoa.
- Era berean, ingurumen-inpaktuaren azterketak baloratu egin beharko du eremuan interesekoa den eta/edo mehatxatuta dagoen faunarako intereseko eremurik badagoen (hazkuntza-eremuak, babeslekuak eta elikadura-guneak).
- Eraginak pairatuko dituzten landare- eta animalia-komunitateen analisiak honako alderdi hauek jorratuko ditu:
 - Kontserbazio-maila. Egiturazko konplexutasuna. Landaretza naturala bertako espezieen ikuspuntutik; duen estaldura-mailaren ikuspuntutik deskribatu beharko da.
 - Espezie katalogatuen eta babestuen presentzia.
 - Bestelako alderdi sentikorrak.
- Paisaia
 - Inguruko paisaia-baliabideei dagokienez, paisaiaren kalitatearen eta hauskortasunaren azterketa egingo da.
- Dokumentazio grafikoa
 - Jarduketa-eremuaren ingurumen-inbentarioaren alderdi garrantzitsuenen irudi kartografiko geoerreferentziadunak txertatu beharko dira, hala eskala orokorrean nola zehatuen, eta kasuan-kasuan erabili den eskala adierazi beharko dute.

2.4.- Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa

Inpaktuen identifikazioa, kuantifikazioa eta balorazioa ingurumen-inbentarioaren elementuen eta eraginak sor ditzaketen proiektuko ekintzen arteko interakzioaren ondorio dira. Erasanaren garrantzia zenbatesteko, kontuan hartu behar dira proiektuak zuzenean nahiz zeharka erasango dien baliabideen kalitatea eta kantitatea.

Inpaktuen identifikazio eta balorazio hori ongi arrazoitu beharko da kasu bakoitzean, eta horretarako, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen VI. eranskinean adierazitako terminologia erabiliko da. Kasu honetan, funtsean, honako hauek konparatuko dira: egungo egoera eta etorkizuneko, zuzenketa-neurriak hartuta.

Ingurumen-inpaktuak zenbatesteko erabilitako metodologiak eta balioeste-metodoak aipatuko dira. Erabilitako adierazle edo parametroak aipatuko dira, ahal den heinean oro har onartutako arauak edo azterketa teknikoak erabiliz, inpaktu mota bakoitzaren arabera muga-balioak edo gida-balioak ezartzeko.

Inpaktuak baloratzeko, proiektutik eratorritako jarduketa guztiak hartuko dira kontuan, honako hauek barne: materialak betelanera eramatearen ondoriozko zirkulazioak sortutako efektuak, aldi baterako sarbideak eta iraunkorrak, instalazio lagungarriak, lurren eta materialen aldi baterako pilaketak eta abar.



Zehazki, bestelako en kalterik gabe, proiektuaren eta eraginpeko eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ingurumen-inpaktuaren azterketak bereziki azpimarratu beharko du Lapatza errekar en afekzioarekin lotutako ingurumen-inpaktuen balorazioa eta natura-baliabideei eragindako ondorioak, landaredi natural autoktonoari eta faunari eragin dakizkiekeen ondorioengatik. Proiektuaren eraginpean dagoen landaredi mota bakoitzaren azalera kuantifikatuko da.

Era berean, ingurumen-inpaktuaren azterketak proiektuak giza osasunean eta herritarren lasaitasunean duen eragina aztertu beharko du. Azterketa akustiko bat aurkeztu beharko da, eta, hartan, behar bezala aztertuko da proiektuko ekintzen ondoriozko intzidentzia akustikoa, kamioiak instalaziorako bidean ibiltzeagatik trafikoa handitzearen ondoriozko inpaktua barne. Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko hotskutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezartzen diren jarduerari aplikatu beharreko immisio-mugak izan beharko dira kontuan. Hala badagokio, azterketa akustikotik eratorritako zarata-emisioak minimizatzeko neurriak xedatuko dira.

Azterketa akustikoaren emaitzak berretsi edo ezeztatu egin beharko du zarata-foku berrietarako araudian ezarritako immisioaren muga-balioak betetzen direla.

2.5. Proiektuaren kalteberatasuna

Istripu larriak edo/eta hondamendi handiak gertatzeko arriskua dela eta proiektuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio kaltegarrien deskribapena, azterketa eta, hala badagokio, kuantifikazioa egingo da, baita istripu edo hondamendi horiek gertatzeko arriskuari buruzkoak ere. Zehazki, pilaketa-gunearen lerradura-arriskua aztertu beharko da. Helburu hori lortze aldera, proiektuari aplikatu beharreko arauari jarraituz egindako arrisku-ebaluazioen bitartez lortutako informazioa erabili ahal izango da.

Horrelako ezbeharrek ingurumenean sortzen dituzten kalte adierazgarriak prebenitzeko eta leuntzeko aurreikusitako neurri guztiak jaso behar dira deskribapenean, bai eta halako larrialdietarako proposatzen diren prestakuntzari eta erantzunari buruzko xehetasunak ere.

2.6. Prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak proposatzea.

Ingurumen-inpaktuaren azterketak ingurumen-inpaktu kaltegarri nagusiak murrizteko, desagerrarazteko edo konpentsatzeko proposatutako neurriak azalduko ditu inguruneko elementu bakoitzerako. Espero diren inpaktuen ezaugarrien arabera proposatu eta doituko dira neurri zuzentzaile horiek.

Inpaktuak prebenitzeko eta zuzentzeko pentsatutako ekintza bakoitza xehetasunez identifikatu eta deskribatuko da, bai ekintzaren diseinu eta kokapenari dagokionez, baita kutsaduraren aurkako prozedurei, arazketari eta ingurumenaren babes generikoari dagokionez ere. Deskribapenak xehetasun-maila nahikoa izan beharko du hautemandako ingurumen-inpaktuak modu eraginkorrean murriztu, desagerrarazi edo konpentsatzen direla bermatzeko, exekuzio-proiektuek izan ohi dituzten apartatuak barne hartuta: memoria, neurketen koadroa, obra-unitateen definizioa, aurreikusitako neurri bakoitzari dagokion aurrekontuko partida eta preskripzio tekniko en agiria, bai eta hori guztia hobe ulertzeko behar den kartografia ere.

Zehazki, eta aurreko apartatuetan eskatutako analisis en emaitzen ondorioz sartu behar diren beste neurri batzuk gorabehera, neurri prebentibo, babesle eta zuzentzaileen proiektuak neurri hauek hartu eta garatuko ditu, beste batzuen artean:

Betelanaren egonkortasuna bermatzeko neurriak

- Natura-ondareari buruzko txostenaren arabera, azterlan geotekniko bat idatzi beharko da, aldameneko betelan zaharrea (horren zati batean, Ikerlora Jardinería y Viveros SL enpresaren egungo instalazioak daude) ezegonkortasun-ebidentziak eta lerradura-zantzuak identifikatu direlako. Betelan berrirako proposatutako eremuak antzeko prozesuak pairatu litzake, ibarraren malda handiak direla eta, eta azterketa zehatz bat egin beharko litzateke, diseinu- eta euste-neurri egokienak ezartzeko.

Natura-ondarea babesteko neurriak

- Landaredia autoktonoa babesteko neurriak.
- Kanal perimetraletan ornodun txikiak ez hiltzeko neurriak.
- Lurraldearen iragazkortasun edo konektibitate ekologikoari eusteko neurriak, perimetroke itxiturak behar izatekotan, gune libre bat mantendu beharko da azpialdean, lurzorua sestratik 15-20 bat zentimetro bitarteko altuerakoa, eta betelanaren amaierako fasean kendu egingo dira.

Sistema hidrologikoa eta hidrogeologikoa babesteko neurriak

- Eremuan edo inguruan dauden ibai-ibilguetako urak kutsatzen ez direla bermatzeko neurriak, hala nola solido esekien ekarpena (hala nola lasto-paken hesiak) eta makineria-parkeetako eta instalazio osagarrietako beste kutsatzaile batzuk isurtzea saihesteko neurriak.
- Obra-eremuetan, eta batez ere indusketa-lanetako materialekin kargatutako kamioiek ibili behar dutela aurreikusten den irteeretan, ibilgailuak garbitzeko instalazioak ipini beharko dira dekantazio-putzuetara konektatuta. Azterlanak azaldu beharko ditu elementu horien ezaugarriak, kokapen zehatza eta neurrien justifikazioa.

Paisaia integratzea errazteko neurriak

- Zaharberitze-proiektu bat idatziko da. Proiektua egikaritzen den azalera guztietan aplikatu beharrekoa izango da proiektu hori.
- Areka perimetralen ertzak landareztatze, zuhaitz- eta zuhaixka-espezie autoktonoak erabiliko dira, eremuaren naturalizazio eta funtzionaltasun ekologiko handiagoa lortzeko.
- Landareztatze proiektuak betelanari eusteko harri-lubeta integratzea lortzeko beharrezkoak diren jarduketak jasoko ditu.
- Landareztatzea leheneratzeko proiektu honetan jaso beharko da gainazal edo eremu bakoitzerako hautatutako espezieen zerrenda, baita landaketaren dentsitatea, aleen tamaina, ereintza edo hidroereintzen konposizioa, neurketak eta proposatutako jarduketak gauzatzeko zein landatutako eremuen mantentze-lanak bermatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-partidak.
- Eremuan espezie inbaditzaileak daudenez, landareztatze-proiektuaren barnean zenbait neurri txertatuko dira flora aloktonoaren inbasio-prozesuak ekiditeko, kontuan hartuz lur-mugimenduek erraztu dezaketela landare mota horien zabalkundea.
- Plano bat erantsiko da; bertan zehaztu eta irudikatuko dira landatuko diren azalera, kasu bakoitzean aurreikusi den tratamendua adierazita (ereintzak, landaketak, landare-pantailak ezartzea, eremu osagarrien eta instalazioen tratamendua).

Herritarrei eragindako kalteak eta eragozpenak murrizteko neurriak

- Atmosferaren kalitatea babesteko neurrien proposamena, obra-fasean hautsa eta usainak aireratzea barne.
- Funtzionamendu-aldian zarata-mailak minimizatzen bideratutako neurrien proposamena.

Kultura-ondarea babesteko neurriak

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak emandako txostenean adierazitakoarekin bat etorriz, ingurumen-inpaktuaren azterketak beharrezko diren neurriak zehaztu beharko ditu Donejakue bidearen jarraipena bermatzeko betelanerako sarbidea egokitzeko obrek eragindako tartetan, bai eta haren erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko ere.

Hondakinak kudeatzera bideratutako neurriak

- Obra-fasean eta betelanaren ustiapen-fasean hondakinak kudeatzeko proposamena. Bilketa-, biltegitratze- eta tratamendu-sistemen deskribapena.

2.7. Ingurumena zaintzeko programa

Ingurumena zaintzeko programa bat eratuko da. Programa horren helburu nagusia izango da ingurumen-inpaktuaren azterketan finkatutako kalitate-helburuak beteko direla bermatuko duen sistema bat ezartzea, bertan adierazitako jarraibideekin eta neurri zuzentzaileekin batera.

Programaren helburuak zehaztuko dira, eta, helburu bakoitzaren barruan, honako hauek adieraziko dira: jaso beharreko datuak, erabili beharreko metodologia, neurketa-puntuak (puntu horiek zehazki kokatzeko egoera-planoa eta krokisa barne) eta neurketen maiztasuna.

Kalitate-helburuak, hala dagokionean, legeriak zehazten dituen muga-balioen edo gida-balioen arabera izango dira, edota oro har onartutako azterketa teknikoaren arabera. Hala ere, proiektuaren eraginpeko eremuaren berezitasunek eta ezaugarri zehatzek hala eskatzen badute, balio zorrotzagoak ezarri beharko dira beharrezkoak irizten zaien parametroetan.

Era berean, dagokion aurrekontua gehitu beharko da, behar bezainbat banakatuta, proiektuaren garapenetik eratorritako eraginaren jarraipen egokia egin ahal izateko. Proiektuari buruz eta proiektuak inguruan duen eraginari buruz jasotako datuen ondorioz beharrezkoak diren kontrolak gain, programa honek jarraian adierazitako kontrolak izan beharko ditu:

Honako kontrol hauek zehaztuko dira:

- Betelanean utzitako hondeaketa-materialak kontrolatzea.
- Obrak okupatzen dituen mugak kontrolatzea.
- Landarediaren gaineko erasanak kontrolatzea.
- Mehatxupeko flora- eta fauna-espezieen gaineko erasanak kontrolatzea, hala badagokio.
- Obrako jardunbide egokiak kontrolatzea, hauek saihesteko: hondakin-isurketak, lurzorua edo uren kutsadura, olio-jarioen, zementu-esneen eta lur-mugimenduen ondorioz, eta biztanleei eragozpenak sortzea, zarataren, hautsaren eta abarren ondorioz.

- Lur-mugimenduak eta indusketa-materialen kudeaketa kontrolatzea.
- Obretan eragina duen inguruneke uren kalitatea kontrolatzea.
- Zarata kontrolatzea ustiapen-fasean.
- Sortutako hondakinen kudeaketa kontrolatzea.
- Leheneratzeko lanak kontrolatzea.
- Aurreikusitako neurri prebentibo, zuzentzaile eta konpentsatzaileen efikazia egiaztatzeke beste kontrol batzuk.

Kontrol-puntuak kartografikoki islatu beharko dira.

2.8. Ingurumen-inpaktuaren azterketaren laburpena

Ingurumen-inpaktuaren azterketaren eta haren ondorioen laburpen-dokumentu bat idatzi beharko da, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, VI. eranskinean ezarritako ezaugarriekin. Dokumentuan labor-labor eta jendeak ulertzeko moduan jaso beharko dira proiektuaren izaerari buruzko informazioa, proiektuak inguruneari eragiten dion modua, eta aurreikusitako inpaktuak saihesteko eta/edo minimizatzeko proposatutako neurriak. Halaber, dokumentazio grafikoa sartzea ere gomendatzen da, jendeari informazioa emateko.

Hala badagokio, ingurumen-inpaktuaren azterketa egitean aurkituko zailtasun tekniko edo informatiboak aipatu beharko dira.

3. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 39.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, egiaztapen batzuk egin ondoren, organo substantiboak ingurumen-organuari bidaliko dio ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta abiarazteko eskaera eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak, hala nola proiektuaren dokumentu teknikoa, ingurumen-inpaktuaren azterketa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitza, eta sustatzaileak egindako oharren dokumentu bat, jasotako alegazio eta txostenetako ingurumen-erakundearen eta kontuan hartzeko moduari dagokionez.

Dokumentazioa formatu digitalean eta xede horretarako egin diren jarraibideekin bat eginez aurkeztu behar da, zeinak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren web-orrian (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/ingurumena/>) baitaude eskuragarri, dagokion atalean [Arloak > Ingurumen Ebaluazioa > Proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluatzeke prozeduraren izapidea > Eskaerak aurkeztea].

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/eu_def/adjuntos/Dokumentuak-aurkezteke-GIDA.pdf

Bigarrena. – Ingurumen-inpaktuaren azterketaren irismen-dokumentuak bi urteke epean izango du balioa, hura sustatzaileari jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Dokumentuak

balioa galduko du epe hori igaro eta organo substantiboari ingurumen-inpaktuaren azterketa aurkeztu ez bazaio ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazio-prozedura hasteko.

Hirugarrena. – Ebazpen honen edukia Ormaiztegiko Udalarari jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 15a.

Javier Agirre Orcajo
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria